

EAGI LHII IKASTETXEAREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK

ERDI MAILA

Aurkibidea

1 Ebaluazioa.....	2
1.1 Gaitasunen ebaluazio sistema.....	2
1.2 Gaitasun teknikoak.....	2
1.3 Zeharkako gaitasunak.....	2
2 Berreskurapenerako irizpideak.....	3
2.1 Gaitasun teknikoak.....	3
2.2 Zeharkako gaitasunak.....	3
3 Balioztatzeak.....	3
4 Asistentzia eta puntualtasuna.....	4
4.1 Hutsegiteen kudeaketa.....	4
4.2 Berandutzeen kudeaketa.....	4
5 Lan praktikaldiak.....	4
6 Sakelako telefonoaren erabilera ikasgela eta tailerrean.....	5
7 Musika entzutea.....	5

1 EBALUAZIOA

1.1 GAITASUNEN EBALUAZIO SISTEMA

Ikasleen gaitasunak erronka bakoitzean egingo diren jarduera ebaluagarrien eta ebidentzien bidez ebaluatuko dira.

Erronka bakoitzaren ebaluazioa 3 item hauen bidez egingo da:

- tailerreko gaitasun teknikoak;
- ikasgelako gaitasun teknikoak;
- zeharkako gaitasunak.

Irakasle taldeak erabakiko du erronka bakoitzean ebaluatutako gaitasunen portzentajea eta ikasleei jakinaraziko zaie. Kasu guztietan honakoa beteko da:

- zeharkako gaitasunen balioa gutxienez %30ekoa izango da;
- item bakoitza gainditzeko derrigorrezkoa izango da dagozkion jarduera ebaluagarri denak gaindituta izatea (5/10);
- erronka bakoitza gainditu ahal izateko ezinbestekoa izango da 3 itemak gainditzea (5/10).

1.2 GAITASUN TEKNIKOAK

Gaitasunak neurtzeko erabilitako jarduera bakoitzak bere errubrika izango du.

1.3 ZEHARKAKO GAITASUNAK

Zeharkako gaitasunak neurtzeko honakoak izango dira kontuan:

- erantzukizuna / ardura;
- autonomia;
- talde-lana;
- ahozko eta idatzizko komunikazioa;
- egoten jakitea.

Erronka bakoitzean zehaztuko da ebaluatuko diren zeharkako gaitasunak.

2 BERRESKURAPENERAKO IRIZPIDEAK

2.1 GAITASUN TEKNIKOAK

Gaitasun teknikoren bat gainditzen ez bada, irakasle taldeak adostutako beste jarduera baten bidez berreskuratu ahalko da.

Jarduera hau ere gainditzen ez bada, 1. AZKEN EBALUAZIOAN erronka horrekin lotutako moduluak gainditzeko aukera izango da. Erronka bakoitzean berreskuratu beharko liratekeen moduluak identifikatuta izango ditu irakasle taldeak.

2.2 ZEHARKAKO GAITASUNAK

Erronka batean gainditu gabeko zeharkako gaitasunen bat izanez gero, berau berreskuratu ahal izateko hurrengo erronkan gainditu egin beharko dira zeharkako gaitasunak. Halakorik gertatzen ez bada, aurreko erronka gainditu gabekotzat emango da. Kasu honetan 1. AZKEN EBALUAZIOAN irakasle taldeak erabakitako jardueraren bidez ebaluatuko da.

1. ADIBIDEA					
ERRONKA	1	2	3	4	5
EGOERA	✓	✓	✗	✓	
ONDORIOA	✓	✓	✓	✓	

2. ADIBIDEA					
ERRONKA	1	2	3	4	5
EGOERA	✓	✓	✗	✗	✓
ONDORIOA	✓	✓	✗	✓	

3 BALIOZTATZEAK

Beste ziklo batetik datozen eta FOL eta EIE gaindituta dituzten ikasleak, ez dira FOL eta EIE klasetara etorri beharko. Hauetako bat bakarrik gaindituta izanez gero, klase guztietara etorri beharko da, FOL eta EIE nahasirik ematen direlako eta zaila egiten delako banatzea. Hala ere, irakasleak klaseren batera huts egiteko baimena eman diezaioke ikasleari.

Ikasle errepikatzaile batek, erronkaka gaindituak baditu erronketan parte hartu behar du. Irakasle-taldearen esku geldituko da erronka bakoitzaren lanak gainditzat ematea ala moldatzea.

4 ASISTENTZIA ETA PUNTUALTASUNA

4.1 HUTSEGITEEN KUDEAKETA

Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte. (201/2008 DEKRETUA)

Honetan oinarrituz ikaslea honela ebaluatuko da:

- EZ GAINDITUA: zuritu gabeko huts egite orduak erronkaren iraupenaren %10a gainditzen badute;
- EZ EBALUATUA: huts egite guztiek (zuritu gabekoak + zurutuak) erronkaren iraupenaren %20a gainditzen badute.

Ikasle baten huts egiteak erronka baten iraupenaren %40a gainditzen badute, irakasle taldeak bere taldetik aterako du ikaslea.

Hutsegiteak agirien bidez zuritu beharko dira eta zurututzat hartzeko motiboak honakoak izango dira:

- mediku kontsultak;
- azterketa ofizialak;
- ikasleen gehiengoak onartutako grebak;
- irakasle taldeak baloratu beharreko bestelako egoerak.

4.2 BERANDUTZEEN KUDEAKETA

- Ikasgelan 5 minututik gora berandu etortzen den ikasleari ordubeteko falta jarriko zaio;
- tailerrean 15 minututik gora berandu etortzen den ikasleari ordubeteko falta jarriko zaio (8:15 edo 11:45).

5 LAN PRAKTIKALDIAK

Praktikalditik ikaslea eskolara bueltatzen bada, dena delako arrazoiarengatik, ikastetxeko egutegia eta ordutegia bete beharko ditu praktikaldia utzi eta hurrengo egunetik aurrera, irakasle taldeak aurkakorik erabakitzen ez badu behintzat. Hutsegiteak kontuan hartuko dira eta ondorioak izango dituzte beste erronketan bezalaxe.

Ikasleak ezin du lan-praktikaldia bere aldetik utzi. Ikasleak arazoren bat badu tutoreari azaldu beharko dio zer nolako arazoa duen eta erabakiari itxoin. Tutorearekin hitz egitea lortuko ez balu, ikastetxearekin jarri beharko luke harremanetan edozein erabaki hartu aurretik

Lan-praktikaldian gerta daitezkeen gorabeherak honela kudeatuko dira:

- ikasleak alde bakarrez erabakia hartuta praktikaldia utzi badu EZ GAINDITUTZAT emango zaio. Ikastetxean egongo den egunetan praktikaldiko txostena egin eta aurkeztu beharko du, irakasle-taldeak bestelakorik ez badio behintzat. Beste lanen bat eginarazi diezaiokete horrez gain edo horren orde, horrela erabakitzen badute.
- ikaslea praktikalditik KALERATU badute irakasle-taldeak erabakiko du nola jokatu, gertatutakoa aztertuko du eta honen arabera ondorioak ezarri.
- Ustekabeko beste edozein egoera emanez gero, irakasle-taldearen esku geratzen da erabakia hartzea eta ondorioak ezartzea.
- Zuritu gabeko 3 hutsegite egiteak lan-praktikaldia EZ GAINDITZEA eragingo du.
- Ikasleak praktikaldien egunerokoa 2 aste jarraian betetzen ez badu, telefonoz abisua emango zaio. Abisua eman eta gero berriro gertatzen bada, praktikaldia EZ GAINDITZEA eragingo du.

6 SAKELAKO TELEFONOAREN ERABILERA IKASGELA ETA TAILERREAN

Ikasleek ezin dute sakelako telefonoa erabili ez ikasgelan ez tailerrean, ez bada irakasleak baimena eman duelako ikaskuntza jarduera bat gauzatzeko.

Ikasleek mugikorrek bakoitzaren karpetan utziko dituzte.

7 MUSIKA ENTZUTEA

- Tailerrean: ikasleek ezingo dituzte belarritako entzungailuak erabili.
- Ikasgelan: ikasleek musika entzun ahal izango dute entzungailuen bidez, irakasleak honetarako baimena ematen dietenean.